

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

AIARAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga kobratzeko aldiaren hasiera, 2019.urtea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal zergaren 2019ko errolda onartu denez, ordainagiriak kobratzeko moduan jartzeko epea hasiko da 2019ko maiatzaren 1etik aurrera.

I. ORDAINTZEKO EPEA

a) Borondatezko aldia: 2019ko maiatzaren 1etik ekainaren 15era.

b) Betearazte aldia: 2019ko ekainaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

a) Banku erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeak 2019ko maiatzaren 16tik aurrera.

b) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek aukera hauek dituzte zerga ordaintzeko:

– Kutxabank erakundeetan:

– Kutxazainean ordaindu, txartela edo libreta erabiliz.

– Urrutiko bankaren bitartez ordaindu.

– Bulegoren batean leihatilan ordaindu (bulegoaren ordutegiaren barruan).

– Nire ordainketa online: Eusko Jaurlaritzaren ordainketa pasabidearen bidez, txartela erabiliz.

– Udal bulegoetan.

III. GOMENDIOAK

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Aiarako Udalarari horren berri eman behar zaio; bai eta interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2019ko apirilaren 11

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA